

Urriak 31.Prentsaurrekoa. 12/2016 legearen Balorazio Batzordearen 4.txostena.

Egiari Zor Fundazioaren izenean, Pilar Garaialde, Guardia Zibilak torturatua eta Triple Ak hildako Paulo Garaialderen alaba.

Egun on.

Egiari Zor Fundazioak balioan jarri nahi du, 12/2016 Legearen Balorazio Batzordearen lana, erakutsi duen profesionaltasunagatik agindutako lanaren kudeaketan eta garapenean; lan horrek oinarri ukaezinak ditu: giza eskubideak eta nazioarteko legedia.

Atzo jakin genuen 93 pertsona gehiago (20 emakumezko eta 73 gizonezko) ofizialki errekonozitu zituztela aipatutako legearen babesean, giza eskubideen urraketen biktima gisa; lege hori, Estatuak edo bere oniritziarekin eragindako motibazio politikoko indarkeriaren biktimei babes juridikoa emateko, indarrean dagoen lege-araua da.

Beste behin txalotu behar ditugu aitortza ofizial berri hauek, inpunitate osoz erail, zauritu eta torturatu zituzten pertsonentzat justizia-ekintza baitira. Berrezarpen moraleko ekintza bat da, gertatutakoaren EGIA ezartzen duena, haien aurkako krimenak justifikatu eta legitimatu zituen kontakizun faltsu batek inposatutako ahanzturaren-hamarkaden aurkakoa.

Atzo ezagutzera eman ziren aitortzek. oso kasuistika anitza marrazten dute egindako bortxaketen tipologiari dagokionez (hilketak, exekuzio estrajudizialak, torturak, bahiketa saiakerak, balaz zauritutakoak, lehergailuz zauritutakoak, etab.), baita horien egileei dagokienez ere (Guardia Zibila, Polizia Nazionalea, Ertzaintza, GAL, Batallón Vasco Español eta beste talde parapolizial batzuk).

Aitortutako kasuen artean, 8 heriotza emaitza daude, besteak beste, Gurutze Iantzi Igerategirena, 1993an Guardia Zibilek Madrilgo 3 Cantoseko kuartelean hil zutena; edo Jose Maria Quesada Lasarterena, 1968an komisariatik igaro ostean ondorio larriengatik hil zena; biak jasandako torturen ondorioz.

Baita 1976ko Bernardo Bidaola Atxegaren heriotzarena ere, bere gorpua, Saratik gertu, baso-eremu batean agertu zen, Guardia Zibilak Etxalarko inguru batean zauritu ondoren; edo Carlos Saldise Kortarena, 1980an BVEk Lezoko bere etxebizitzaren atean tiroz eraila. Gainerako erailketa kasuak, Guardia Zibilak eta Polizia Nazionaleak tiroz eragindakoak dira.

11 dira larriki zauritutako pertsonen kasuak, hala nola, Errenterian 1980an, bere ibilgailuaren azpian BVEk jarritako lehergailu batek eztanda egitean zaurituak. Suertatu ziren senar emazteak.

1985ean GALEk balaz zauritutako Josu Amantes Arnaiz, esaterako, edo 1983. urtean bahiketa saiakera eta lesio larriak pairatu zituen Jose Maria Larretxea Goñiren kasua ere, Barrionuevo ministro ohiak agindua, El Pais egunkariari emandako elkarrizketa batean aitortu zuen bezala.

Ke-poteek edo gomazko pilotek eragindako begi-galerak. Peio Mindegiaren kasua esaterako, 1979an bere aurpegiaren kontra distantzia laburrean jaurtitutako ke-pote batek itsu utzi zuena.

74 tortura kasu, hala nola: Estibaliz Olabarrieta eta Kepa Solana, Ertzaintzak torturatuak, Josu Eguzkitza, Enkar Blanco, Dione Ugalde eta Pilar de la Torre, Guardia Zibilak torturatuak, edo Xabier Onaindia, Sabino Zarandona eta Pedro Ginea, Polizia Nazionalak torturatuak.

Adierazi behar dugu, balorazio-batzordeak aurkeztutako txostenak, hainbat garaitan hainbat emakumeri egindako sexu-erasoak aipatzen dituela, eta hori benetan higuingarria dela, tortura-kasuei buruz jasotzen dituen pasarte guztien gogortasunari gehientzen zaizkienak.

Laugarren txosten honek 93 aitortza berri dakartza, aurreko 3 txostenek batzen dituzten 147 aitortza eta 107/2012 Dekretuak jasotako 187 aitortza gehituz, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 427 dira ofizialki aitortutako giza eskubideen urraketak. Gainera, Foru Legearen bidez, 34 kasu gehiago aitortu dira, beraz, Hego Euskal Herrian, orain artean guztira, 461 aitortza ofizial eman dira.

Atzo Batzordeak adierazi zuen bezala, 64 eskaera ez dira onartu epez kanpo aurkeztu direlako, eta guk egiaztatzen dugu biktima askok bidali digutela Egiari Zor fundazio honetara, beren eskaera ahal den unean aurkezteko, dokumentazioa.

Gaur egun, milaka dira aitortza ofizialik gabe jarraitzen duten giza eskubideen urraketak eta hura eskuratzeko aukerarik gabe jarraitzen dutenak

Egoera hau berehala zuzendu beharreko anomalia demokratikoa da. Urte gehiegi daramatzagu zain, eta merezi dugu legez aitortuak izateko dugun eskubidea gauzatu ahal izatea.

Era berean, Batzordeak berak behin eta berriz salatzen duen eta guretzat onartezina den elementu bat azpimarratu behar dugu: Ez da onargarria bitartekoen faltagatik prozesu hau moteltzea. Administrazioak behar diren baliabideak jarri behar ditu batzorde horren zerbitzura, beren lana baldintza ezin hobeetan egin ahal izan dezaten, prozesua eraginkorra, dinamikoa eta proaktiboa izan dadin.

Honengatik guztiagatik, berriro eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari: Aitortzaren legegintzaldia izan behar du honek. Premiazkoa da epe berri bat zabaltzea eskaera berriak izapidetzeko, legearen denbora-eremua egokituz eta bere garapenari helduz.

Bizikidetzaren demokratikorako funtsezko gaia da hau, zalantzarik gabe kezkatzen gaituena, eta afera honen gainean jarduteko asmoz bilera-sorta bat hasi dugu erakundeekin, alderdiekin eta sindikatuekin. Lehendakariaren erantzunaren zain ere bagaude, harekin guzti hori jorratzeko.

Eskerrik asko.